

HEZHI: MUSIKA BIZI EZAN/K

ARTISTAREN EZAGUTZEKO IKERKETA FASEA

PANTXIXEN
AURKEZPEN
INTERAKTIBOA




KONTZERTU
BATEN AFIXA
edo MUSIKA
KRITIKA



MALETA IBILTARIA



PROUSTEN
GALDEKETA



Interreg
POCTEFA
HEZHI



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE

AfoMef



digitalidadea
EUSKARA ETA KULTURAREN SAREAN



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

PROUSTEN GALDEKETA

Maila:

- Lizeoa / Bigarrena
- DBH / Laugarren maila

Saio kopuruak:

- Ordu bateko saio bat

Gaitasunak:

[Frantziako Hezkuntza Nazionaleko buletin ofiziala / Bigarreneko atzerritar eta eskualdeko hizkuntzen programa:](#)

- Écrire:
 - Peut écrire des textes courts sur des sujets d'intérêt familiais, en liant les phrases avec des connecteurs tels que « et », « parce que », « ensuite ».
 - Peut donner ses impressions et son opinion dans des écrits portant sur des sujets d'intérêt personnel en utilisant un vocabulaire et des expressions de tous les jours.

- Établir un espace pluriculturel:
 - Peut, à l'occasion de rencontres interculturelles, reconnaître des points de vue différents de sa propre vision du monde et en tenir compte, clarifier les malentendus et discuter des ressemblances et des différences de points de vue et d'approches afin de détendre l'atmosphère et de permettre à la discussion d'avancer.

Oinarrizko jakintzak:

[Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma / Laugarren maila:](#)

- A - HIZKUNTZA ETA BERE HIZTUNAK :
 - Bizitza pertsonaleko eta eskola eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa.
 - B - KOMUNIKAZIOA :
 - 1. Testua eta testuingurua:
 - Komunikazio-egitatearen osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera publiko edo pribatua; solaskideen arteko gizarte-distantzia; komunikazio-asmoak eta xedeen interpretazioa; komunikazio-kanala eta komunikazioan hitzezkoak ez diren elementuak.
 - Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziazko abestiak.
 - 3. Produkzioa:
 - Pentsamendua antolatzeke eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar.
 - 6. Hizkuntza elementuen onarpena eta diskurtso erabilera:
 - Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Testu-lokailuak (banatzaileak, ordenakoak, kontrastekoak, azalpenekoak, kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta hipotesikoak) eta barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak eta lexikoak (esanahi abstraktuko nominalizazioak eta hiperonimoak...).
 - Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuena eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.

Euskarriak eta iturriak:

- Norberak bakarka osatzeko galdeketa, artistak eta irakasleak hautatutako galderekin (Prousten galdeketa).

PROUSTEN GALDEKETA

Bukaerako

ekoizpena eta urrats ezberdinak:

- [Prestaketa:](#)

> Irakasleak: galdera motak eta kopurua hautatzea edota sortzea artistarekin.

- [1. saioa:](#)

> Irakasleak ariketaren helburua azaltzen die ikasleei : haien gustuak, nortasuna, irudimena Pantxixi ezagutaraztea.

Ikasleek bakarka: galderak irakurtzea irakaslearekin eta gogoeta hastea. Galdeketari autonomian erantzutea. Irakasleak lehen ebaluaketa formatibo bat egin dezake.

- [2. saioa:](#)

> Ikasleek (bakarka): irakasleak galdeketak itzuli ondotik, zuzentzea edota eranskinak egitea.

> Talde ttipietan edo binaka: galdera/erantzunak irakurtzea eta komentatzea.

- [3. topaketa baino lehen :](#)

> Irakasleak: ikasleen erantzunak bidaltzea artistari.

- [4. topaketa:](#)

> Erantzunak partekatzea edota konparatzea artistarekin: interakzioa ikasleekin.

Helburuak edo

irizpideak eta autoebaluazioa:

- Galdera guziei erantzun dut.
- Gogoeta pertsonala eraman dut.
- Ene kultura ezagutzak eta ene gustuak mobilizatu ditut ene “autopotretaren” egiteko.
- Erantzun zuzenak idatzi ditut: gramatika eta ortografia.

Talde lana:

- Lehen fasean: bakarkako gogoeta.
- Bigarren fasean: erantzunen partekatzea gelakideekin.
- Hirugarren fasea: erantzunen partekatzea artistarekin.

